

Deialdiaren laburpena

EUSKARA IKASTAROAK 1-2-3HE

2017-2018 IKASTURTEA

Argibide gehiago:

- 452/2017 Ebazpena (2017ko martxoaren 30eko EHAA)
- 1/2017 Jarraibideak
- Zerbitzu-erakundeetako euskara zerbitzuak
- Zuzendaritza Nagusiaren Euskara Zerbitzu Korporatiboa
- www.osakidetza.eus
- www.osakidetza.euskadi.eus

NORENTZAT DIREN

Deialdi honetan parte har dezakete Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere. Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

IKASTAROA ESKATZEKO BETEKIZUNAK

1. Zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea epe hauetan:
 - Lanorduetako ikastaroa eskatzeko: 2017ko martxoaren 14tik apirilaren 23ra, biak barne.
 - Lanorduz kanpoko ikastaroa eskatzeko: 2017ko martxoaren 14tik maiatzaren 19ra, biak barne.
2. Gainera, aldi baterako langileen eta ordezkoen kasuan, 2016ko martxoaren 29tik 2017ko martxoaren 29ra bitartean guztira bost hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta ikastaroak iraun bitartean lanean egongo direla aurreikusi behar da.

ESKATUTAKO IKASTAROAREN ARABERAKO BETEKIZUN ZEHATZAK

3. Ikastaro trinkoa edo barnetegialdia lanorduetan eskatzeko langileak lehentasunezkoztat jotako unitatean dagoen lanpostua bete beharko du, Osakidetzan 2. Euskara Planaren 5.5 atalak jasotakoaren arabera.
4. Lanorduetan **2 orduko** ikastaroetan parte hartu ahal izango dute **soilik**. txanda finkoan ari diren langileek.
5. Autoikaskuntza ikastaroa eskatzeko langileak txandaka lan egin behar du edo bere lanpostuaren berezitasunak direla eta euskaltegian aurrez aurreko ikastaroa egiteko zailtasunak izan behar ditu.
6. Autoikaskuntza ikastaroa eskatzeko, 2016-2017 ikasturtean autoikaskuntzan jardun duten ikasleek ikasturtearen bukaeran gutxienez %80ko asistentzia izan beharko dute.

ESKABIDEAK EGITEKO EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENAK

- Lanorduetako ikastaroak: **2017ko apirilaren 3tik 23ra**, biak barne.
- Lanorduz kanpoko ikastaroak: **2017ko apirilaren 3tik maiatzaren 19ra**, biak barne.

Eskaera Internetetik egingo da; horretarako NANA eta pertsonal zenbakia beharko dira:

- www.osakidetza.eus
- www.osakidetza.euskadi.eus

- **Lanorduetako** ikastaroa onartua edo ukatua izan den **jakinaraztea**: **idatziz jakinaraziko** zaie **interesatuei** 2017ko **maiatzaren 10erako**. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez emango dute jakinaraztera onartutakoen eta ukatutakoen zerrenda (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula...). Eskaera ukatuz gero, lanorduz kanpoko ikastarorako eskabidea egiteko aukera egongo da maiatzaren 19a arte (bera barne).

- **Lanorduz kanpoko** ikastaroa onartua edo ukatua izan den **jakinaraztea**: Lanorduz kanpoko ikastaroetako baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda Osakidetzaren web gunean jarriko da jendaurrean. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez jakinaraziko dute (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula...). Behin-behineko zerrenda 2017ko uztailaren lehen hamabostaldian emango da argitara eta behin betiko zerrenda 2017ko irailaren lehen hamabostaldian.

LANORDUETAKO IKASTAROAK

- **Aukeraketa-irizpideak.**

- Langileak lehentasunezkoztat jotako unitatean dagoen lanpostua bete beharko du, Osakidetzan 2. Euskara Planaren 5.5 atalak jasotakoaren arabera.
- Adinagatik edo lan-harremanagatik, inor da baztertua izango lanorduetako euskara ikastaroetara joateko.

Dena dela, 50 urtetik gorako langileen kasuan, egiaztatu beharko da euskaltegiko 106 urratsa gaindituta dutela.

- Lehentasun-hurrenkera

- Derrigortasun-datadun lanpostuak betetzen dituzten langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute derrigortasun-datarik gabeko lanpostua betetzen dutenek baino.
- Langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute finko ez direnen langileek baino.
- Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileek lehentasun handiago izango dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen aldean.

- **Ikastaroak antolatzea.**

- Erakunde guztietako eskabideak jaso eta ikasle bakoitzaren hasiera maila zehaztu ondoren, IVAPEk administrazioko langileekin osatutako taldeak antolatuko ditu. Talde horiek osatu ahal izateko, maila, toki eta ordutegi bereko ikasleak bilduko dira.
- IVAPEk hiriburuetan eta goizez bakarrik osatuko ditu administrazioko ikastaldeak.
- Arratsaldeetan edo gainontzeko ordutegietan ikasi nahi dutenei eta administrazio taldeetan sartu ez direnei matrikula-orria emango die IVAPEk, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikula daitezen.
- Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi behar da eskolan. IVAPEk ez du onartuko urriaren 20a baino geroago hasterik eskolan eta data hori iragan ondoren bertan behera utziko ditu eskolan hasi ez diren langileen eskaerak.
- Langileak ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago baimenari uko egiten dionean, ezinbestean egin duela justifikatu beharko du.

- **Administrazio taldeen ezaugarriak.**

Administrazioko langileez osaturiko taldeek ondorengo ordutegi eta egutegiak izango dituzte:

MODULUA	HERRIA	ORDUTEGIA	HASIERA	AMAIERA
5 ordu	Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz	8:00-14:00	2017-10-02	2018-02-09
2 ordu	Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz	8:00-10:00	2017-10-02	2018-05-31

Administrazioko taldeetan ez, baizik eta beste euskaltegi batzuetako taldeetan eskolatzen diren ikasleek tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia jarraitu beharko dituzte.

Barnetegiko ikastaroak Zornotzako Aurten Bai barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi horien eskaintzaren arabera izango dira.

- **Mailaketa-probari buruz.**

- IVAPEk eskatzailearen mailaren berri ez badu, mailaketa proba egitera deituko du. Eskaeran adierazi duten tokia eta ordutegia kontuan izanda, administrazioko taldeetan sar daitezkeen eskatzaileak baino ez dira deituko proba egitera. Lehen urratsetik hasi behar duten eskatzaileek ez dute mailaketa probarik egin beharko.

- Proba egitera deitua izan den **langilea nahitaez aurkeztu behar** da proba egitera. Aurkezten ez bada, horren arrazoiak idatziz eta egokiro arrazoitzen badio IVAPi dagokion zerbitzu-erakundearen bitartez; beranduen ere, proba egunetik 2 egun baliaduneko epean.
- Probara aurkeztu ez izana arrazoitu gabe gelditzen bada, **IVAPek bertan behera utziko du eskabidea**.
- Mailaketa probak ekainaren bigarren hamabostaldian egingo direla aurreikusten du IVAPek.

- **Matrikula-orria lanorduetan.**

Matrikula-orriaren bitartez lanorduetan egiten den ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

- Urritik ekainera bitartekoa izan behar du. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroak lauhileko iraupena izan behar du.
- HABEk homologatua izan behar du eta gutxienez 165 orduko iraupena izan beharko du 2 orduko ikastaroa denean eta 400 ordukoa trinkoa denean.

- **Lanorduetako ikastaroen asistentzia-arauak.**

- Liberatuta dagoen langilearentzat euskaltegia lantokitza joko da ondorio guztietarako. Beraz, asistentzia-faltak idatziz justifikatu behar dira langilearen zerbitzu-erakundeko zuzendaritzan. Puntueltasun-faltak justifikatuak izan beharko dute beti. Justifikatu gabeko puntueltasun eta asistentzia-faltak gertatuz gero, arrazoi nahikoa izan daiteke kanporatua izateko, eta hurrengo ikastaroetan ez onartzeko.
- Eskolarik ez dagoen egunetan, lanorduetan ikasten ari den langileak lanpostura itzuli beharko du derrigorrez.
- Ikastaro hauen ezaugarriak kontuan hartuta, aprobetxamendua ahal den onena izateko opor-egunak ikastaroko eskola-egunetik kanpo hartu behar dira.

LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

- **Aukeraketa-irizpideak.**

- Autoikaskuntza ikastaroak txandaka lan egiten duten edo euren lanpostuaren berezitasunak direla eta euskaltegian aurrez aurreko ikastaroa egiteko zailtasunak dituzten langileentzat dira.
 - Lehentasun-hurrenkera:
 - Txandaka lan egiten duten langile finkoak
 - Txandaka lan egiten duten langile interinoak
 - Txandaka lan egiten duten langile ordezkio eta aldi baterakoak
 - Langile finkoak
 - Langile interinoak
 - Langile ordezkio eta aldi-baterakoak
- Lanorduz kanpoko ikastaro trinkoa egiteko baimena duten ikasleak administraziooko taldeetan eskolatzen eskolatuko ditu IVAPek.

- **Lanorduz kanpoko ikastaroak antolatzea.**

- Behin jasotako eskaerak aztertuta, IVAPek onartutako eskaerei dagozkien matrikula-orriak bidaliko ditu Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzara, honek dagokion zerbitzu-erakundeari helarazteko.
- Lanorduz kanpoko ikastaro trinkoetarako eskaerak, eskolatze ondorioetarako, lanorduetako ikastarotzat hartuko ditu IVAPek. Hori dela eta, IVAP saiatuko da lanorduz kanpoko ikastaroa trinkoa egiteko baimena duten ikasleak administraziooko taldeetan eskolatzen. Ikastaro horiek egutegi eta ordutegi zehatza izango dute eta hiru hiriburuetan antolatuko dira. Langileak talde horien egutegira eta ordutegira moldatu beharko du.

- **Matrikula-orriak lanorduz kanpo.**

- IVAPek matrikula orri bakar bana emango die eskaera onartu zaien langileei, matrikula-orri berezia hain zuzen, eta bertan jasoko da zein ikastaro egin daitekeen.

- Ez da onartuko autoikaskuntzako matrikula-orriaren bitartez aurrez aurreko ikastaroetan matrikulatzerik, ezta alderantziz ere.
- Matrikula-orriaren bitartez egingo den lanorduz kanpoko ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:
 - a) Gutxienezko iraupena: Bost orduko ikastaro trinkoek lau hilabete iraun behar dute eta gutxienez 400 ordukoak izango dira. Ordu biko ikastaroak urrian hasi eta ekainean bukatuko dira eta gutxienez 165 ordukoak izango dira. Autoikaskuntza ikastaroak gutxienez 190 ordukoak izango dira.
 - b) HABEk homologatua izan behar du.
- Matrikula orria ordainagiri baten parekoa da, eta horregatik, ikastaroa egiteko baimendutako langileak konpromisoa hartzen du dagokion matrikula orria jasotzeko eta, inon matrikulatzen ez bada, dagokion jakinarazpenarekin batera ahalik eta lasterren bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzara itzultzeko, betiere urriaren 20a baino lehenago.
- IVAPek ez du ordainduko 2017ko **urriaren 20a** baino geroago entregatutako matrikula-orriak.
- Matrikula orria erabiltzen ez bada, urriaren 20a baino lehenago itzuli behar da dagokion zerbitzu-erakundearen pertsonaleko zuzendaritzan “Ikastaroari uko egiteko inprimakia” izeneko agiriarekin batera.
- Matrikula-orria jaso edo erabili ezean, itzuli egiten ez bada, hurrengo deialdian eskabidea baztertua izango da.

IKASTAROARI UKO EGITEA

- Langileak **ikastaroari uko egitea** erabakitzen badu, bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzari **jakinarazi** beharko dio eta honek Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzari emango dio ukoaren berri. Giza Baliabideetako Zuzendaritzak, bere aldetik, IVAPi jakinaraziko dio ukoa.
- Era berean, langileak matrikula orria jaso badu, 2017ko **urriaren 20a baino lehenago itzuli** egin beharko du dagokion jakinarazpenarekin batera. Agiri biak bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzan aurkeztu beharko ditu.
- Ukoa jakinarazteko, “*Ikastaroari uko egiteko inprimakia*” izeneko agiria erabili beharko da. Inprimakia zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo da eskura, bai eta honako helbide elektroniko hauetan ere:
 - www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1,2,3HE prestatzeko ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Ikastaroari uko egiteko inprimakia)
 - www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Ikastaroari uko egiteko inprimakia)

ESKOLARA JOATEARI UZTEA

- Eskolan hasi ondoren ikastaroa behin betikoz utziz gero, horren berri eman beharko dio langileak bere pertsonaleko zuzendaritzari **eskola uztea gertatzen den une berean**. Horretarako, “Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia” agiria bete eta dagokion pertsonaleko zuzendaritzan erregistratu beharko du. Pertsonaleko zuzendaritzak eskola uztea erregistratu bezain pronto (egun berean) IVAPi eskola uzte horri dagokion dokumentazioa bidaliko dio, IVAPek dagokienei horren berri eman diezaien.
- Inprimakia zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo da eskura, bai eta honako helbide elektroniko hauetan ere:
 - www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1,2,3HE prestatzeko ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)
 - www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)

- Aurrez aurreko ikastaroetan drrigorrezkoa izango da eskola uztea jakinaraztea. Eskola-uztearen data inprimakia langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da eta IVApek egun hori hartuko du ordu-kredituaren kontaketa eteteko. Hau da, eskola-uztea jakinarazten ez bada, ikasleak jarraitu egingo du ordu-kredituaren orduak gastatzen.
- Autoikaskuntza ikastaroetan IVApek ez du eskola-uzterik onartuko, ikasleak eskola-uztea jakinarazi badu ere.
- Autoikaskuntza ikastaroa uzteak bi ondorio izango ditu: batetik, ordu-kredituari ikastaroaren ordu kopuru oso kenduko zaio eta, bestetik, hurrengo deialdian autoikaskuntza eskaera ezetsi egingo da, interesatuak ez baitu 2017-2018 ikasturteko autoikaskuntza ikastaroan %80tik gorako asistentzia beteko.

ORDU-KREDITUA

- Ikastaroei dagokienez, ordu-kreditu sistema ezarri da eta jarraituko zaie Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduari eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, hizkuntza-prestakuntzako eta normalizazioaren arloan sinatutako lankidetz hitzarmenari.
- Agindu horren seigarren artikuluari jarraiki, euskara ikastaroa hasi ahal izateko **beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea ikasturte hasieran.**
- IVApekin eskolatzen diren langile guztiei ezartzen zaie, hau da, ikastaroak lanorduetan egiten dituztenei nahiz lanorduz kanpo egiten dituztenei.

DATUEN BABESA: LEGE OHARRA

Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen kudeaketa arau hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, bai eta datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak ere (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Espainiako Agentzia izenekoan erregistratutako IVAPen “Funtzionarioak euskalduntzea” eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren “Registro del personal de Osakidetza-SVS” izeneko fitxategietan egongo dira. Ikasleek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero. Horretarako, “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategiaren kasuan, IVApeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. “Registro del personal de Osakidetza-SVS” izeneko fitxategiaren kasuan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea 45, 01006, Vitoria-Gasteiz.